

 Donostiako Udala Ayuntamiento de San Sebastián	
2018 MAI. 08 MAY. 08	
SARRERA / ENTRADA	IRTEERA / SALIDA
/.....	130 / 62

UDALA BERDINTASUNA
IMANOL TELLERIA

Jaun hori:

Honekin batera Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak 2018ko apirilaren 24ko bilkuran, onartutako Erakunde Adierazpenari buruzko egiaztatari hau bidali dizut, jarraian zehazten den gaiaren ingurukoa dena:

ERAKUNDE ADIERAZPENA, PROEMAID GKE-KO HIRU SUHILTZAILE ERRESKATATZAILE BOLUNTARIOEI ELKARTASUNA ETA BABESA AZALTZEKO.

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazi dizut.

Donostian, 2018ko maiatzaren 8an.

Estimado Sr.:



Adjunto remito certificación relativa a la Declaración Institucional aprobada, por la Junta de Portavoces del Ayuntamiento de San Sebastián el pasado 24 de abril de 2018, referida a:

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE SOLIDARIDAD Y APOYO A LOS TRES BOMBEROS RESCATADORES VOLUNTARIOS DE LA ONG PROEMAID.

Lo que le comunico a los efectos procedentes.

En San Sebastián, a 8 de Mayo de 2018.

**DONOSTIAKO UDALEKO BITARTEKO IDAZKARI NAGUSIA /
EL SECRETARIO GENERAL EN FUNCIONES DEL AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN**


 Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idazkari Nagusia
General

Iñaki Txintxurreta Perdiguero



Don IÑAKI TXINTXURRETA PERDIGUERO Jn.

Donostiako Udaleko Bitarteko Idazkari Nagusia naizen honek Secretario General en funciones del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2018ko apirilaren 24an izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, aho batez:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 24 de abril de 2018, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:



“Denok dakigu Mediterraneo itsasoan, mendebaldean, erdialdean eta batez ere ekialdean, 2015. urtetik hona exodo masiboa gertatzen ari dela hainbat faktoreren ondorioz; besteak beste Ekialde Erdiko gerra eta gatazken ondorioz, eta exodo hori giza tragedia izugarria eragiten ari dela. Fluxu hori dela medio, pertsonak etsi-etsian itsasora jotzen dute, gerratik ihesi, eta naufragatu bultzatzeko arrisku handiak hartzen dituzte.

“Por todos es conocida la tragedia humanitaria desencadenada por el éxodo masivo producido en el Mediterráneo occidental, central y, especialmente, oriental, a partir de 2015 y debido, entre otros factores, a los conflictos bélicos en Oriente Próximo. Un flujo que empuja a las personas a lanzarse al mar para huir de la guerra y en condición de potenciales naufragos.

Gizon, emakume eta neska-mutikoek beren bizitzak arriskatzen zituzten eta dituzte itsasoan, gerraren ankertasunetik ihes egiteko eta nazioarteko hitzarmenen arabera Estatuek eman beharko luketen segurtasuna eskuratzeko. Fenomeno horren ondorioz, hainbat ekimen sortu dira egoera hori jasaten duten pertsonen laguntzeko.

Hombres, mujeres, niños y niñas arriesgaban entonces y arriesgan a fecha de hoy sus vidas en el mar, para escapar de la barbarie de la guerra, para alcanzar la seguridad que deben proporcionar los Estados de acuerdo con los tratados internacionales. Este fenómeno ha provocado el surgimiento de un amplio abanico de iniciativas destinadas a tratar de ayudar a las personas que sufren esta situación.

Testuinguru honetan, beharrezkotzat jotzen dugu PROEMAID GKE-eko kide boluntario diren hiru suhiltzaileei publikoki babesa ematea; izan ere, Greziako Lesbos uhartean errefuxiatuak erreskatatzeko lanean aritu ondoren, pertsonen salerosketan jarduteko saiakera leporatu diete.

En este escenario, estimamos necesario apoyar públicamente a los tres bomberos miembros voluntarios de la ONG PROEMAID que han sido acusados de tentativa de tráfico de personas en base a su trabajo como voluntarios rescatando personas refugiadas en la isla griega de Lesbos.

Baldintza lazgarri horietan laguntzeko

En el marco de estas dramáticas



asmoarekin, Sevillako hiru suhiltzaile profesional hauek, Manuel Blanco, Julio Latorre eta Enrique Rodríguez, PROEMAID GKE-eko kideak, beren ekimenez eta boluntario moduan joan ziren Greziako Lesbos uhartera, salbamendu eta erreskate lanetan aritzera. PROEMAID irabazi asmorik gabeko elkarte da eta Espainiako Elkartearen Erregistroan inskribatuta dago. Beren borondatez eta musutruk laguntza ematen duten larrialdietako profesionalek osatzen dute elkarte hori.

Lesbosen bere misioari ekin zionetik, PROEMAIDek Kanpo Gaietako Espainiako Ministerioari (Espainiak Grezian duen enbaxadaren bidez) eta Greziako agintariei eta zuzenean Kostaldeko Guardiari eman die bere lanaren berri.

Lanean ari zirela, Kostaldeko Guardiak 2016ko urtarrilaren 14ko goizaldean atxilotu zituen hiru suhiltzaileak eta epailearen esku utzi zituen, ustezko delitu hauek leporatuta: pertsonekin salerosketan jarduteko saiakera eta armak edukitzea. Team Humanity GKE-eko bi boluntario danimarkarrekin batera atxilotu zituzten PROEMAIDeko kideak; izan ere, atxilotu zituzten gau jakin hartan GKE horren ontzian zihoazen sevillarrak. Danimarkako GKEak itsasoratzeke deia egin zuen, abisua jaso baitzuen ontzi batek arazoak zituela, eta deiari erantzunez, hiru suhiltzaileak danimarkarrekin batera ureratu ziren. Alabaina, salbamendu taldekoek ez zuten ontzirik aurkitu eta porturantz zetozela, guardiek atzeman egin zuten GKE danimarkarraren ontzia Greziako uretan, migratzailerik gabe, espediente judizialean ageri denez.

Mitileneko Kostaldeko Guardiaren ziegan hiru egun atxilotuta egon ondoren, eta Greziako abokatu baten aholku letratua jasota, hiru suhiltzaile andaluziarrak aske geratu ziren, bakoitzak 5.000 euroko gordailua ordainduta, ahozko ikustaldian agertuko direla bermatzeko. Agerraldi hori 2018ko maiatzaren 7an izango da, Mitilene, Lesbosen hiriburuan.

Gogoratu behar da, ontzian migratzailerik


circunstancias, los tres bomberos profesionales sevillanos Manuel Blanco, Julio Latorre y Enrique Rodríguez, miembros de la ONG PROEMAID, acudieron, por propia iniciativa y con carácter voluntario, a la isla griega de Lesbos para realizar actividades de rescate y salvamento. PROEMAID es una asociación sin ánimo de lucro inscrita en el Registro Nacional de Asociaciones y que está constituida por profesionales de las emergencias que prestan su trabajo de forma voluntaria y altruista.

Desde el principio de la misión en Lesbos, PROEMAID ha reportado su trabajo al Ministerio español de Asuntos Exteriores, a través de la Embajada española en Grecia, y a las autoridades griegas competentes y directamente a la Guardia Costera.

En el desempeño de su tarea, los tres bomberos fueron detenidos en la madrugada del jueves 14 de enero de 2016 por la Guardia Costera Griega y puestos a disposición judicial por un supuesto delito de tráfico de personas en grado de tentativa y de posesión de armas. Se les arrestó junto con otros dos voluntarios daneses, pertenecientes a la ONG Team Humanity, en cuya embarcación iban circunstancialmente embarcados los miembros de PROEMAID en la noche en que fueron detenidos. Los tres bomberos acudieron a la llamada de la ONG danesa para salir al mar tras recibir un aviso de que había una embarcación con problemas, pero al regresar a puerto tras no encontrarla, la embarcación de la ONG danesa fue interceptada en aguas griegas sin migrantes a bordo, tal y como atestigua el expediente judicial.

Tras tres días de arresto en el calabozo de la Guardia Costera de Mitilene, y tras el asesoramiento letrado de un abogado griego, los tres bomberos andaluces fueron puestos en libertad, debiendo abonar un depósito de 5.000 euros cada uno para garantizar su comparecencia en la vista oral, ahora fijada para el 7 de mayo de 2018 en Mitilene, la capital de Lesbos.

Cabe recordar que, además de que fueron





gabe atzeman zituztela eta, horrez gain, Itsasoko Zuzenbideak, derrigorrez bete beharreko ordenamendu juridikoak, eta bereziki Itsasoan Giza Bizitza Segurtatzeko Nazioarteko Hitzarmenak (SOLAS) eta Bilaketa eta Salbamenduari buruzko Hitzarmenak (SAR) betebehar utziezinak ezartzen dituztela naufragoak salbatzeari buruz, naufragoareen estatutu juridikoa alde batera utzi gabe, eta, inolako zalantzarik gabe, naufragoak portu segurura eramateko betebeharra ezartzen dietela sorosleei.

Zailtasunak zailtasun eta hiru kideren jardueraren zorigaitzoko kriminalizazioari aurre eginez, PROEMAIDek lan goresgarria egiten jarraitzen du gaur egun ere, Mediterraneoko eremu honetan eta beste batzuetan migratzaileak bilatzen eta salbatzen. Elkarte hau eta beste asko, muturreko egoeretan dauden gizon, emakume eta haurrak salbatzeko lanean ari dira laguntzen nazioartean, eta, beraz, ez da bidezkoa lan hori dela-eta gaur egun eta zoritxarrez jasaten ari diren kriminalizazioa egozte, ez kasu honetan eta ez antzeko beste batzuetan. Beraz, eta inolako zalantzarik gabe, jardun humanitarioak lirateke eta Sarrera errazteko Europako Zuzentarauan berariaz aipatutako ardurak kriminalen salbuespena ezarri beharko litzateke.

Horregatik guztiatik, honako hau aurkezten dugu:

ERAKUNDE ADIERAZPENA

1.- Donostiako Udalbatzak babesa eta laguntza adierazi nahi die Manuel Blanco, José Enrique Rodríguez eta Julio Latorre jaunéi, Lesbos uhartean (Grezia) erreskate eta salbamendu lanetan emandako laguntza humanitarioagatik.

2.- Donostiako Udalbatzak publikoki onartzen du Proemaid GKEaren erabilgarritasuna eta izaera humanitarioa, beren borondatez eta musutruk laguntza ematen duten larrialdietako profesionalek osaturiko erakundea den aldetik.

interceptados sin migrantes en su embarcación, el Derecho del Mar, ordenamiento jurídico de obligado cumplimiento, y en especial, el Convenio sobre Seguridad de la Vida en el Mar (SOLAS) y sobre Búsqueda y Rescate (SAR), impone obligaciones irrenunciables sobre salvamento de naufragos sin perjuicio del estatuto jurídico del naufrago e impone sin ningún género de dudas al socorrista la obligación de su traslado a un puerto seguro.


Pese a las adversidades y la desafortunada criminalización de la actividad de tres de sus miembros, PROEMAID sigue desplegando, al día de hoy, su encomiable labor de búsqueda y rescate en ésta y otras localizaciones del Mediterráneo. Esta Asociación, junto con muchas otras, contribuyen a nivel internacional en las labores de salvamento de hombres mujeres y niños y niñas en circunstancias extremas, no siendo merecedoras por ello de la criminalización de la que son actual y desgraciadamente objeto, en este y en otros casos similares: se trataría, por ello y sin ningún género de dudas, de labores humanitarias a los efectos de exención de responsabilidades criminales a las que hace referencia explícita la Directiva europea de facilitación.

Por todo ellos, presentamos la siguiente

DECLARACION INSTITUCIONAL

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián manifiesta su apoyo a D. Manuel Blanco, D. José Enrique Rodríguez y D. Julio Latorre por su labor humanitaria realizando trabajos de rescate y salvamento en la isla de Lesbos (Grecia).

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastian reconoce públicamente la utilidad y carácter humanitario de la ONG Proemaid como organización constituida por profesionales de las emergencias que prestan su trabajo de manera voluntaria y altruista.





3.- Donostiako Udaltzakar uste sendoa adierazi nahi du asiloa, aterpea edo nazioarteko beste babes subsidiario moduren bat eskatzen dutenek estatutu hori galdegiteko eskubidea dutela, nazioarteko hitzarmenetan ezarritako baldintzetan, eta, horrez gain, naufragoak sorosteko eginbehar utziezina bete beharrekoa dela, edozein izanik ere haiek duten edo eduki nahiko luketen estatutu juridikoa. Hain zuzen, egiaztatuta geratu da hiru suhiltzaile andaluziarrek eta haien GKEak eginbehar hori bete dutela publikoki, eta horren aitortza ere egin nahi du Udaltzakar.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián expresa su convicción del derecho que asiste a todo/a solicitante de asilo, refugio u otra forma de protección internacional subsidiaria, a solicitar tal estatuto en las condiciones que estipulan los convenios internacionales, y todo ello más allá del reconocimiento que supone el cumplimiento del deber irrenunciable de socorro a naufragos -sea cual fuere el estatuto jurídico que éstos tengan o al que aspiren- que queda acreditado en la públicamente celebrada labor de los tres bomberos andaluces y su ONG.

4.- Hiru auzipetuak, gure herrikideak, modu bidegabean egozten zaizkien karguetatik erabat errugabeak direlako uste sendoa adierazi nahi dugu, eta aho beteko adierazpen honen bidez gure babes irmoa eta elkartasuna agertu nahi diegu.

4.- Manifestar el absoluto convencimiento en la inocencia de los tres encausados, conciudadanos nuestros, respecto a los cargos que, injustamente, se les imputan, brindándoles con la presente declaración unánime nuestro más firme apoyo y solidaridad.

5.- Donostiako Udaltzakar Kanpo Gaietako eta Lankidetzarako Ministerioari eskatzen dio akordio hau helarazi diezaiola Greziako Gobernuari". =====

5.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Ministerio de Asuntos Exteriores y de Cooperación a trasladar el presente acuerdo al Gobierno de Grecia". =====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2018ko maiatzaren 4an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 4 de mayo de 2018.

BITARTEKO IDAZKARIA Nagusia Udala
EL SECRETARIO GENERAL EN FUNCIONES Ayuntamiento de San Sebastián


Idazkari Nagusia
Secretario General
Iñaki Txintxurreta Perdiguero